

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Astoa orrazten

ITXIOKORRIA idi-uztarriak tiratako goldea harrotu eta idi pareta gelditzeko gai da. Ez diogu alferrik deitzen “utzi horri bakean!”. Itxiokorria, *Ononis spinosa* da. *Ononis* landarearen izen grekoa eta *spinoso* landare arantzaduna edo eskardaduna delako. Enbor arantzatsua, zakarra da heltzeko, baina azkura kentzeko egoki askoa. Asto orrazia ere deitzen diote gazteleraz, *peine de asno*. Osinetan irriz irri itoko litzatekeen astoak gozo egiten du hazka idi pareta seko gelditzeko gai den landaretxoan. Astoaren orrazi honek, galtzen ari den sakelan

orrazia eramateko ohi-tura ekarri dit gogora; garai batean, emakumeek ezpainetako margoa eta ispilutxoak bezala, gizaseme ugari orrazia izan ohi zuen patrikan. Baita astakilo eta astakirten frankok ere.

Iditik astorako edo astotik idirako gurdibidea egiten duen landare gehiago ere bada.

Egunero ia ikusten dut bat, uretako astaperrexila, *Cicuta virosa*. Errioz bazterreko ibilaldian hor agurtzen dugu elkar. Ura den tokietan hazten da astaperrexil hau. Enborrik gabe, ipurdi-ipurditik hostaje mardula eman eta udaberriko lehen beroekin gara luzeak azalduko dira hostoen artean gora. Laguna adinakoak izan daitezkeen lore gara hauek arraunlarietara eta arrantzaleetara, korrokoietara eta lupietara makurtuko dira, bai baitaki ez batzuek eta ez besteek inola ere ez diotela kosk egingo. Pozoia du berme. Berme eta astotik idirako bidezidor: uretako astaperrexilari *matabuey* diote gazteleraz, ingelesez, besteak beste, *cowbane*, *beaver-poison*, *children's-bane*, *snakeveed* eta *musquash-poison*.

Uretako astaperrexil hau *Cicuta* generokoa da baina ez da izen bereko pozoia ematen duen landarea. Azken hau, Sokrates eta abar aurrean hartu eta jo eta akabatu zituena *Conium maculatum* da, geurean astaperrexil handia deitzen duguna. Uretakoa, *Cicuta virosa*, gure aldekoa da, atlantikora begira hazi diren kulturetako paisaietakoa. Astaperrexil handia, ordea, mediterraniarra da, munduaren zilborra zela uste zuten Sokrates eta beste hainbat lurretakoa. Gure astaperrexilak ezin hilko zuen bada. Uretakoak ez, handiak hilko zuen...



JAKOBA ERREKONDO



JAKOBA ERREKONDO

Kolonizazioa

Kultura batek bestea mendean hartzen du. Hau da patua. Hau da patua, baldin eta bere horretan onartzen badugu...

Kristautasunak, inguru hauetan ezagutzen dugun erlijio beltzenak, gorrienak, aurreko gurtza eta sinesmen guztiak, espiritualtasun sotilenak, zanpatu ditu, zapuztu ditu. Eta barkamena da bere, kristauen beraien, oferta merkeena, eskaintza apalena... Behatza eman eta bihotza hartu dio esaerak, baina kuidoan/k, ez dute besoa emango, behatza emango... Kristauak dena berea du, baita denona dena ere.

Besoa ebaki beharrean erramuari (*Laurus nobilis*) adarra kendu eta bedeinkatuko du, udaberriko lehen ilargi beteko astearen aurreko igandean. Hau da hau, kanpoko gurtzaren landare bat hartu eta bertakoa zapuztea. Berehala etorriko dira elorri zuria (*Crataegus* sp.), lizarra (*Fraxinus excelsior*) atarrietan jartzeko egunak, baina ordurako erramua bedeinkatua izango da. Dugu. Kristauak dute...



Paisajismo zerbitzua · Terraza eta lorategiak diseinatzea

San Frantzisko, 24 · 20870 Elgoibar · Tel: 943744516